

Pan eta dragoiaren lepokoa



Kaixo! Ni Pan naiz, eta 12 urte ditut. Zafiro herrian bizi naiz eta niri gertatutako abentura baten istorioa kontatuko dizuet.

1739. urteko egun batean, liburutegi zaharrera joan nintzen. Han, liburu bat hartu nuen eta irakurtzen hasi nintzen. Gauza ikaragarriak deskubritu nituen: Pegaso, Excalibur, Minotauroa, Quimera,... Baina dudarik gabe gehien gustatu zitzaidana Dragoi gorriaren lepokoa izan zen. Bere istorioa oso interesgarria iruditu zitzaidan. Dirudienez, lepokoa jartzen zuenak boterea edukiko zuen dragoi guztiengan, elementu guztiengan (sua, ura,...) eta galaxia guztiak menpean izango zituen.

Hau irakurri eta gero, bere bila joatea erabaki nuen nire familiarentzat onena lortzeko. Horregatik, liburua hartu nuen eta etxera joan nintzen. Bidean, ama aurkitu nuen eta lagunekin egun batzuk mendian pasatuko nituela esan nion. Ez nion egia esan ez zidalako joaten utziko.

Etxean, ama eramango nituen janariak prestatzen ari zen bitartean, nire aitaren ezpata ezkutuan hartu nuen, botere bereziak zituelako, baina oraindik ez nekien zeintzuk.

Nire ama agurtu eta leku seguru batera joan nintzen. Inor ez zegoela ziurtatu ondoren lasai irakurtzen hasi nintzen.

Hasteko, garraibide berezia behar nuelarik Pegasori buruzko informazioa bilatu nuen liburuan. Antza denez, Pegaso zaldi hegalaria da, leku garaienetan bizi da eta elfoen abestiaz erakartzen da.